

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2020-2021 ikasturtea**

**BIKIEN ESKOLATZEA:**

**IKASGELA BEREAN ALA IKASGELA DESBERDINETAN?**

**Egilea:** Naia Pecoraro Mariñelarena

**Zuzendaria:** Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor

Leioan, 2021eko maiatzaren 29an

**AURKIBIDEA**

Sarrera.....	4
MARKO TEORIKOA.....	5
1. Bikiak definitzen.....	5
1.1. Definizioa.....	5
1.2. Motak.....	5
2. Bikien eskolatzeari Euskal Autonomia Erkidegoan.....	5
a) Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzea.....	5
b) Ikastetxeen esku-hartzea.....	5
c) Familien esku-hartzea.....	6
3. Bikien arteko erlazioa.....	6
3.1. Atxikimendua.....	6
3.2. Beste bikiarekiko mendekotasuna.....	6
3.3. Nortasunaren eta identitatearen eraketa.....	7
3.4. Bikien bereizketa eta indibidualizazioa.....	7
4. Elkarrekin ala bananduta?.....	8
4.1. Ikuspegi kognitibotik.....	9
4.2. Ikuspegi emozionaletik.....	9
4.3. Ikuspegi sozialetik.....	10
5. Hezitzaileen esku-hartzea.....	10
5.1. Ikasgelan jarduteko gomendioak.....	10
5.2. Irakasleen rola.....	11
MARKO ENPIRIKOA.....	11
6. Helburuak.....	12
7. Metodologia.....	12
7.1. Prozedura.....	12
7.2. Parte-hartzaileak.....	12
7.3. Tresnak.....	13
8. Emaitzak.....	13
8.1. Ikasle bikiak.....	13
8.2. Familiak.....	15
8.3. Hezitzaileak.....	17
9. Ondorioak.....	18
10. Etika profesionala eta datuen babesa.....	22
11. Erreferentzia bibliografikoak.....	22
ERANSKINAK.....	25

**BIKIEN ESKOLATZEA: IKASGELA BEREAN ALA IKASGELA DESBERDINETAN?****Naia Pecoraro Mariñelarena**

UPV/EHU

Gaur egun, gero eta biki gehiago eskolatzen dira euskal ikastetxeetan. Horrenbestez, gero eta guraso eta hezitzaile gehiagok bikiak nola eskolatu erabakiari aurre egiten diote. Horren aurrean, bi aukera daude: bikiak gela berean eskolatzea edo bikiak gela desberdinetan eskolatzea. Lan honetan, aukera batek zein besteak bikiengan izan ditzakeen eraginak islatzen dira. Halaber, hezitzaileek kasu bakoitzaren aurrean ikasgelan jarduteko gomendioak zehazten dira. Bikien eskolatzea gure errealitatera hurbiltzeko asmoarekin, euskal ikastetxeetako hainbat hezitzailek, familiek eta biki ikerlan honetan parte hartu dute eta galdera desberdinei erantzun diete. Galdetegen emaitzetan, eskolen artean bereizketa sustatzen bada ere, familiek bikiak gela berean eskolatzeko joera dutela ondorioztatzen da.

*Bikiak, bikien eskolatzea, bikiarekiko mendekotasuna, bikien individualizazioa, hezitzaileen esku-hartzea*

En la actualidad cada vez son más los/as gemelos/as que se escolarizan en los centros vascos, por lo que cada vez más padres, madres y educadores se enfrentan a la decisión de cómo escolarizarles. Frente a ello, hay dos opciones: escolarizarles en el mismo aula o escolarizarles en diferentes aulas. En este trabajo, se reflejan los efectos que una u otra opción puede tener sobre los/as gemelos/as. Asimismo, se especifican las recomendaciones de actuación en el aula por parte de los/as educadores/as ante cada caso. Con el objetivo de acercar la escolarización múltiple a nuestra realidad, varias familias, educadores/as, y gemelos/as de centros vascos han participado en este estudio y han respondido a diferentes preguntas. En los resultados de los cuestionarios, si bien desde los centros escolares se fomenta la separación, las familias tienden a escolarizar los/as gemelos/as en el mismo aula.

*Gemelos, escolarización múltiple, dependencia entre gemelos, individualización de gemelos, intervención de educadores*

Nowadays, more and more twins are being schooled in Basque schools, so more and more families and educators are faced with the decision of how to school twins. Faced with this, there are two options: schooling the twins in the same classroom or schooling the twins in different classrooms. This study reflects the effects that one or the other option may have on twins. In addition, the recommendations for classroom action by educators in each case are specified. In order to bring the schooling of twins closer to our reality, several educators, families and twins from Basque schools have participated in this study and have answered different questions. The results of the questionnaires, although the separation between schools is promoted, conclude that families tend to school twins in the same classroom.

*Twins, twins in school, dependency between twins, individualisation of twins, intervention of educators*

## Sarrera

Bikiak Euskal Autonomia Erkidegoko jaiotza-tasaren %1 osatzen, %2,6 osatzera igaro dira (Lago, 2016). Halaber, azken urteetan bikien erditzea %86 hazi da Euskadin (Vasco Press, 2013). Azken berri honi buelta ematen badiogu, euskal ikastetxeetan bikien eskolatzeko %86 hazi dela antzeman dezakegu. Hori dela eta, gero eta guraso gehiagok eta gero eta hezitzaile gehiagok bikiak nola eskolatu erabakiari aurre egiten diote.

Eskolatzeko anizkoitzaren gainean gero eta interes handiagoa badago ere, nekez aurki daitezke galdera garrantzitsuari erantzuten dioten ikerlanak: bikiak ikasgela berean ala ikasgela desberdinetan eskolatu? Lan hau galdera nagusi horri erantzuten saiatuko da, betiere, hezkuntzaren ikuspuntutik.

Lan honen helburuei dagokienez, bikiak nola eskolatu erabakiaren gaineko hausnarketa eragitea eta gaiari ikusgarritasuna ematea izan dira, besteak beste, lan hau burutzearen arrazoi nagusiak. Horretarako, hurrengo orrialdeetan, urteetan zehar bikien inguruan egin diren ikerketa desberdinak laburbildu dira eta bildutako datuak jakinarazi dira.

Halaber, eskolatzeko anizkoitzak euskal ikastetxeetan jarraitzen duen prozeduraren hurbilketa egiteko asmoarekin, bikiak, bikiak dituzten familiak eta ikastetxe desberdinetako hezitzaileak lan honen protagonistak bihurtu dira eta beraien iritziak eta esperientziak partekatzeko aukera izan dute lan honetan.

Aurrekoaz gain, lan honek hezkuntzan duen garrantzia nabarmentzea gustatuko litzaidake. Hain zuzen ere, etorkizunean hezitzaileak izango garen heinean, irakasleok gai honen inguruan oinarri minimo batzuk izatea ezinbestekoa dela deritzot. Izan ere, bikien indibidualizazioaren eta autonomiaren lorpena zein bikien nortasunaren eraketa zuzena, gure eskuetan izango dugu.

Azkenik, etorkizuneko hezitzaile gisa ez ezik, biki gisa ere lan hau egiteko aukera izan dudala azpimarratzea gustatuko litzaidake. Izan ere, lan honen bidez, bederatzi urteetan zehar nire nebarekin ikasgela berean egoteagatik bizi izandako esperientzia eta sentimendu desberdinei azalpena aurkitu diet.

## MARKO TEORIKOA

### 1. Bikiak definitzen

#### 1.1. Definizioa

Gaztelaniaz bikiak sailkatzeko hitz ezberdinak egon arren, *mellizo/melliza* edo *gemelo/gemela*, euskaraz hitz bakarra erabiltzen dugu; alegia, biki hitza. Gaztelaniazko *mellizo* hitza latinezko *gemellicius* hitzetik dator, baita *gemellus* -*gemelo*- hitza ere, erditze berean jaiotako banakoei erreferentzia eginez (Gatica, 1988). Euskaltzaindiaren arabera (2021), bikiak sabelaldi berean jaiotakoei deritze. Halaber, biki hitzak bikoitza adierazten du, beraz, bikiak sabelaldi berean jaiotako bi anai-arrebei deritzela esan daiteke.

#### 1.2. Motak

Bi mota daude: biki monozigotikoak eta biki dizigotikoak. Biki monozigotikoak zatitu den obulu emankor bakar batetik garatzen dira, eta beraz, material genetiko bera dute. Biki dizigotikoak, berriz, ongarritutako obulu batetik baino gehiagotatik datoz, eta genetikoki antzekoak dira neba-arrebak izateagatik (Cabero et al., 2007). Beste alde batetik, 'biki' terminoa aipatzen denean, hiru aukera posiblei erreferentzia egiten zaie: sexu bereko bikiei, beraz, mutila-mutila zein neska-neska, edo sexu desberdinetako bikiei, hots, neska eta mutila (Feenstra, 2016).

### 2. Bikien eskolatzea Euskal Autonomia Erkidegoan

Euskal Autonomia Erkidego mailan, bikien eskolatzea hiru ikuspuntu desberdinetatik azter daiteke: Eusko Jaurlaritzak arautzen duenaren ikuspuntutik, ikastetxeek hartzen duten erabakiaren ikuspuntutik, eta azkenik, familiek erabakia hartzeko aukera izatearen ikuspuntutik.

#### a) Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzea

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hezkuntza Ikuskaritzak ez du eskolatzeko anizkoitzaren inguruan ezer aipatzen. Horrenbestez, legeriak eskolatzeko anizkoitzaren kudeaketa euskal zentroetako hezitzaileen esku uzten duela antzeman daiteke.

#### b) Ikastetxeen esku-hartzea

Laborrak (2014) bere tesian aipatzen duen moduan, ikastetxeek, oro har, bikiak ikasgela desberdinetan ikastea gomendatzen dute. Izan ere, Espainiako ikastetxe

gehienek eskolatze anizkoitzean politika zurruna inposatzen dute, banaketa beti gomendatuz eta anai-arreba bakoitzaren banakako garapena bultzatzeko modurik onena hori dela defendatuz (Laborra, 2014). Euskal Autonomia Erkidegoari begira, ikastetxe bakoitzak ikasle anizkoitzak nola eskolatu erabakitzeko ahalmen osoa du; alegia, gela berean edo gela desberdinetan (Pérez, 2014).

### c) Familien esku-hartzea

Goian aipatu bezala, eta Pérezen (2014) hitzak berreskuratuz, euskal zentroek ahalmen osoa dute bikiak nola eskolatu erabakitzeko orduan. Horrenbestez, ikastetxe bakoitzaren esku dago erabaki horren barne familia sartzea ala ez.

## **3. Bikien arteko erlazioa**

Bikiek, sarritan, fisikoki antzekoak izateaz gain, kode genetiko bera dute (Casino, 2005). Hori dela eta, bikiek elkarrekiko lotura berezia eta beste anai-arrebengandik desberdina izaten ohi dute; eta haien arteko sintonia afektibo sendoak eta elkar ulertzeak, askotan, nahikoa egiten die bata bestea edukitzearekin (Luján, 2008). Hori dela eta, bikiek atxikimenduak eragindako beste bikiarekiko mendekotasuna paira dezakete (Fortuna et al., 2010). Atal honetan, bikien arteko erlazioa baldintzatzen duten hainbat faktore azaltzen dira.

### **3.1. Atxikimendua**

Atxikimendua maite edo gogoko den zerbaiten alderako edo norbaitenganako loturari deritzo (Euskaltzaindia, 2021). John Bowlby (1958) psikoanalistaren arabera, lehen lotura hori zaintzaile primarioekin ezartzen da nagusi; aitzitik, beste pertsona jakin batzuekiko atxikimenduekin osa daiteke, hala nola, anai-arrebekiko edo gertuko beste zaintzaileekiko atxikimenduekin.

Honen harira, Lópezek (2016) bere tesian azaltzen duen moduan, atxikimendua norengana zuzentzen den hurbiltasuna neurtuz aztertzen badugu, bikien arteko lotura amarekiko edo beste kideren batekiko lotura baino lehen sor daitekeela antzeman daiteke, amaren umetokian sortutako lehen harreman eta interakzio horren ondorioz.

### **3.2. Beste bikiarekiko mendekotasuna**

Bikien ikertzaileek, oro har, mendekotasunaren kontzeptua erabili dute bikien

arteko lotura berezi hori definitzeko; eta ikerketa eta eztabaida horiek bikien arteko harremanarekin lotuta egon daitezkeen arazo psikologikoetan eta portaera txarretan oinarritu dira. Izan ere, bikiarekiko mendekotasuna identitatearen eraketan eta bikien arteko identifikazioan dauden arazoen adierazpena izan daiteke (Trias et al., 2010).

Bikien elkarrekiko erakarpen intentsitatea generoarekin lotu ohi da, eta bien arteko antzekotasun mailak ere eragina izan dezake. Hainbat ikerketen arabera, biki monozigotikoek elkarrekiko mendekotasun handiagoa dute biki dizigotikoekin alderatuz; halaber, emakumeek gizonen baino bikiarekiko mendekotasun handiagoa adierazten dute (Neyer, 2002 & Sanathara et al., 2003; Trias et al.-ek 2010ean aipatua). Hala eta guztiz ere, mendekotasun mailak adinarekin behera egiten du, arrazoia bien arteko bereizketaren eta indibidualizazioaren lorpena izanik (Trias et al., 2010).

### **3.3. Nortasunaren eta identitatearen eraketa**

Norbanakoaren identitatea mugimendu bikoitz honetan eraikitzen da: asimilazioan eta bereizketan; hots, bestearen identifikazioan eta bereizketan. Era berean, identitatearen eraikuntza norberaren definizioarekin, autokontzeptuarekin eta autoestimua garapenarekin zeharo lotuta dago (Haeussler & Milicic, 1995). Horrenbestez, autokontzeptu-maila jakin bat eratzeko, norberak bere buruaz duen irudia garrantzitsua da; izan ere, horrek norbanakoak izan nahi duenaren, denaren eta besteek izatea nahi dutenaren arteko balizko desadostasunaren ondorioak ere modulatu ditu (Pienda et al., 1997).

Bikiak besteek nola ikusten gaituzten kontzeptuarekin lotuz, Feenstraren (2016) esanetan, nahiz eta bikiak berez haien nortasun propioa ezartzeko eta bien arteko bereizketa egiteko gai izan, gainerakoek pertsona bakar bat balira bezala tratatzen badituzte, bikiak ez dute bien arteko bereizketa zuzena egingo. Era berean, bereizketa hau ulertzea lortzen badute ere, besteek espero dutenaren arabera jokatu dute; alegia, bi direla baina ez bi pertsona desberdin (López, 2016).

### **3.4. Bikien bereizketa eta indibidualizazioa**

Gainontzeko haur guztiek bezala, bikiak ere beraien lehen zaintzailearen banatze- eta indibidualizazio-prozesua pairatzen dute. Aitzitik, bikiak beste bereizketa-prozesu bat zeharkatzen dute; alegia, gainerako haurrek zeharkatzen ez dutena: ko-

bikiaren banaketa (Siemon, 1980).

Bikien bereizketa eta indibidualizazioarekin estu lotuta, Lópezek (2016) bi maila desberdin bereizten ditu: maila indibiduala eta maila soziala. Identitate indibiduala bikiari dagokiela adierazten du; aitzitik, identitate soziala garatzerakoan etengabeko nahasketa dagoela azaltzen du. Izan ere, identifikazio sozialak bikiak berdinak direla definitzera jotzen du, baita bat balira bezala tratatzera ere. Horrela, ikuspegi kolektibo batetik sortzen den identitate sozialak norberaren identitatearen distorsioa eragiten du maila pertsonalean; hain zuzen ere, bikiak desberdinak direla jakin eta baieztatu arren, gainerakoek berdin sailkatzea eramaten baitituzte.

#### 4. Elkarrekin ala bananduta?

Eskuarki, haur bakoitzak bere indibidualtasuna garatzeko asmoarekin, bereizketa sustatzen da eskolen eta gurasoen artean. Hala ere, anizkoitzak diren aldetik, pareak diren aldetik, haur anizkoitzek nortasun eta identitate berezia dutela ez da kontuan hartzen, eta errealitate hori ez da zertan ezetsi. Beraz, haur bakoitzaren interes partikularrak sustatzea garrantzitsua bada ere, garrantzitsua da, halaber, haur anizkoitzak lotzen dituen lotura berezi hori ezagutzea (Pérgola, 2019).

Ez dago arau bakar bat haur guztiei egoera desberdinetan aplikatu ahal izateko, baina *Twins Magazinek* (2008) horrela laburbiltzen du anizkoitzak banatzea beharrezkoa noiz den eta elkarrekin egoteko arrazoiak zeintzuk diren (Pérgola, 2019tik hartuta).

- Anai-arrebak gela desberdinetan banatzea beharrezkoa da:
  - Ikasteko behar desberdinak badituzte.
  - Garapen kognitiboa desberdina bada.
  - Besteekin sozializatzen ez badira.
  - Batek besteari itzal egiten badio.
  
- Gelan elkarrekin egoteko arrazoiak dira:
  - Ingurune edo egoera sozial desberdinetara ondo egokitzen direnean.
  - Bakoitzak bere lagunak dituenean.
  - Elkarrekin zein bananduta ondo lan egiten dutenean.



- Antzeko gaitasun kognitiboak dituztenean.
- Bestearen presentziak motibatzen dituztenean.

#### **4.1. Ikuspegi kognitibotik**

Ikasgelan bikiak banatzearen gaia interesgarria izan da 1960ko hamarkadatik; alegia, Kochek (1966) banaketak bikien egokitzapenean dituen ondorioak ikertzeko lehen ikerketa egin zuenetik. Ikerketa honek banandutako bikiak elkarrekin eskolatutako bikiak baino errendimendu hobea zutela aurkitu zuen: hizketa aurreratuagoa eta bikien koefiziente intelektualean desberdintasun handiagoak (Tully et al., 2004).

Webbink et al.-en lanak (2007) eskolan ikasgela bera partekatzeak bikien gaitasun kognitiboa hobetzen duen aztertu zuen. Horretarako, lehen hezkuntzako bikiak eta beraien ikaskideak aztertu zituzten. Ikerlan horrek emaitza desberdinak lortu zituen. Alde batetik, hizkuntzaren garapenari dagokionez, banatu gabeko bikiak hizkuntza arloan emaitza hobekak lortzen dituztela ondorioztatu zuten; eta aldea handiagoa dela sexu bereko bikientzat. Beste alde batetik, garapen kognitiboari dagokionez, gutxienez urtebeteko banaketaren eragina aztertu zuten, eta garapen kognitiboan eraginaren bat bakarrik bigarren mailan aurkitu zuten; aitzitik, goiko mailetan, bikiak ikasgela desberdinetan banatzeak gaitasun kognitiboan eraginik ez duela ondorioztatu zuten.

#### **4.2. Ikuspegi emozionaletik**

Tully et al.-en lanak (2004) bikiak gela desberdinetan banatzeak euren portaeran duen eragina aztertu zuen, besteak beste. Horretarako, *Longitudinal Twin Study*-ko bikiak parte-hartzaitzat hartu zituzten. Analisi horretatik, eskolako lehen urtean banandu zituzten bikiak barneratze-arazo gehiago zituztela ondorioztatu zen; eta biki monozigotikoen kasuan, arazo horiek denboran irauten zutela. Harago, gela-bereizketak bikien arteko barneratze-arazoen garapenarekin lotuta egon daitekeela aditzera eman zuten.

Honen harira, behintzat bizitzako lehen urteetan bikiak gela berean mantentzea onuragarria izan zitekeela iradoki zuten autoreek. Halaber, bikiak gelaz banatzearen aurretik barneratze-arazoak ez zituztela aurkitzeak eta banatutako bikien artean arazoak areagotzen zirela egiaztatzeak, bikien arteko banaketa arazo emozionalen garapenarekin lotuta egon daitekeela ondorioztatu zuten. Era berean, bikiak gela desberdinetan

banatzea bikientzat gertaera estresagarria izan daitekeela adierazi zuten (Tully et al., 2004).

### **4.3. Ikuspegi sozialetik**

DiLallak (2006) bikien garapen sozialaren inguruko ikerlana burutu zuen. Ikerlan horrek bi hipotesi kontrajarri aztertu nahi zituen: batetik, bikiak prosozialagoak direla etxean adin bereko beste kide batekin hazi direlako; eta bestetik, bikiak ez direla hain prosozialak, ez direlako hain eroso sentitzen genetikoki antzekoak ez diren beste haur batzuekin. Bikien portaera sozialari eta oldarkorreko neurriei dagokienez, autoreak bi azterlan egin zituen bikiak gainerako umeekin alderatzeko. Horretarako, sexu eta adin bereko bi haur eraman zituen gela batera, horietako bat beti bikia izanik. Bi haurrek askatasunez jolas zezaketen 20 minutuz.

Autoreak umeek denbora horretan zuten erlazionatzeko era aztertu zuen eta hurrengo emaitzak ondorioztatu zituen: familiakoak ez diren ikaskideekin jolasteko orduan, bikiak ez dira gainerako haurrak bezain prosozialak. Halaber, bikiak lehen haurtzaroan portaera prosozial pobregoa izan dezakete, eta horrek etorkizuneko bikien portaera soziala arriskuan jar dezake (DiLalla, 2006).

## **5. Hezitzaileen esku-hartzea**

Gurasoek ez ezik, hezitzaileek ere bikia bakarra senti dadin eta bere nortasuna garatzeko aukera izan dezan sustatu behar dute (Franklin, 2016). Horretarako, irakasleek jarraibide batzuk jarraitu beharko lituzkete modu zuzenean jokatzeko; behinik behin, bikiak gela berean eskolatzeko erabakia hartu bada.

### **5.1. Ikasgelan jarduteko gomendioak**

Fatone et al.-en (2019) arabera, gurasoek eta ikastetxetako hezitzaileek biki bakoitzak urtero dituen benetako premiak kontuan hartzea oso garrantzitsua da, haur horien arteko harremanari mesede egiteko eta bakoitzaren garapen indibiduala bultzatzeko euskarririk onena emateko. Hezitzaileek haur anizkoitzak lantalde desberdinetan parte hartzera bultzatzeko konpromisoa hartu behar dute, bakoitzaren lehentasunak identifikatu beharko dituzte eta lan-rol desberdinak proposatu (irakurketa, idazmena, etab.). Asmoa ez da bikiak modu fisikoan bereiztea, baizik eta haietako bakoitzak, bere bikiak garatzen dituen jardueretatik aparte, beste jarduera batzuk egiteko

gaitasuna duela ikasten hastea (Fatone et al., 2019).

## 5.2. Irakasleen rola

Lujáneren (2008) arabera hauek dira irakasleek kontuan hartu behar dituzten zenbait alderdi, biki euren identitatea eraikitzen eta nortasuna garatzen laguntzeko:

- Irakasleak ikasleei erreferentzia egiteko, biki hitza erabiltzeari ekidin behar dio, eta beraien izenez deitu.
- Irakasleak bakoitzaren gustuak errespetatu behar ditu, bikiak izateagatik gauza berdinak gustuko ez dituztela alde aurretik dakiela.
- Irakasleak biki bakoitzak bere materiala izatea erraztu behar du, bai eta beraien objektu pertsonalak uzteko leku desberdinak dituztela egiaztatu ere.
- Irakasleak une oro saihestu behar ditu bere lanen, jardueren, portaeren edo aurrerapenen arteko alderaketak, bai gurasoekin hitz egiteko orduan, bai haiekin hitz egiteko orduan.

Aurreko ikerketa eta ondorio desberdinetan oinarrituz, ikastetxeek bikiak nola eskolatu erabakitzeko ahalmen osoa dutela, eta aldi berean, familia erabakiaren barne sartzeko ahalmen osoa dutela argitu da. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren legeriak ez du zehazten zein den ikasle anizkoitzak eskolatzeko jarraitu beharreko prozedura. Halaber, ikastetxe eta familia gehienek bikien arteko bereizketa sustatzen dutela azaldu du autore batek.

Haatik, erabaki hori hartzeko orduan hezitzaileak zertan oinarritzen diren edo jarraitzen dituzten irizpideak zeintzuk diren ez da aipatzen, eta gauza bera familiek erabakitzeko aukera izanez gero. Hori dela eta, lanaren hurrengo atalean, euskal hezitzaileei, familiei eta biki egi egindako ikerketaren prozesua azaltzen da. Baita ikerlanetik ateratako emaitzak eta ondorio nagusiak ere.

## MARKO ENPIRIKOA

Atal honen barruan, aurrera eramane den ikerketaren helburu nagusiak, jarraitutako metodologia eta lortutako emaitzak aditzera ematen dira.

## **6. Helburuak**

Ikerketa honen helburu nagusia, ikasle anizkoitzak gela berean edo gela desberdinetan eskolatzearen erabakiaren aurrean, ikasleen, hezitzaileen eta familien testigantzak eta iritziak jasotzea izan da. Hots, hauen iritziz erabakia noren esku egon beharko lukeen aditzera ematea eta kasu bakoitzean jarraitu izan diren prozesu desberdinak aztertzea eta alderatzea. Halaber, beste helburuetako bat gaiari ikusgaitasuna ematea eta auzi honen gainean hausnarketa eragitea izan da.

## **7. Metodologia**

Atal honen barruan, ikerketa burutzeko jarraitu den prozedura, galdetegia bete duten parte-hartzaileak eta ikertzeko erabili diren tresnak azaltzen dira.

### **7.1. Prozedura**

Ikasle anizkoitzak nola eskolatu erabakiaren aurrean, ikasleen, hezitzaileen eta familien iritziak eta bizipenak desberdintzea erabaki da. Hori dela eta, multzo bakoitzari egokitutako galdetegia prestatu da, guztira hiru galdetegi desberdin sortuz. Behin galdetegiak sortuta, tutoreari bidali zaizkio oniritzia jasotzeko.

Multzo bakoitzarekin harremanetan jartzeko baliabideak desberdinak izan dira. Ikasleekin galdetegia eskura emateko edo WhatsApp aplikaziotik bidaltzeko abagunea eman da. Ikastetxeetako hezitzaileekin, berriz, Covid-19a dela eta, zentroetara ez hurbiltzea eta galdetegia digitalizatuz (Google Formularios-en bitartez) helbide elektronikoz bidaltzea erabaki da. Azkenik, familiarekin harremanetan jartzeko, probabilitaterik gabeko laginketa elur-bolaren teknika jarraitu da; hots, ezagututako familiei galdetegia zabaltzeko eskatzea, seme-alaba bikiak dituzten ahalik eta familia gehien aurkitzeko.

### **7.2. Parte-hartzaileak**

Gaiaren inguruko lehenengo hurbilketa egiteko, 30 parte-hartzailek bete dute inkesta. Alde batetik, 10 ikasle bikik erantzun dute, 9 eta 24 urte bitartekoak. Horietatik, lauk itunpeko ikastetxe batean ikasi dute, eta gainerakoek ikastetxe publiko batean.

Bestetik, euskal ikastetxe batean lan egiten duten 10 hezitzailek erantzun dute, horietatik seik ikastetxe publikoan, bakarrak ikastetxe pribatuan, eta gainerako hirurek

itunpeko ikastetxean lan egiten dutelarik.

Azkenik, seme-alaba bikiak dituzten 10 familiek erantzun dute, horietatik bakarrak ikastetxe publikoan, hiruk ikastetxe pribatuan, eta gainerakoek itunpeko ikastetxean seme-alabak eskolatu dituztelarik.

### 7.3. Tresnak


Aurretik aipatu bezala, multzo bakoitzari egokitutako hiru galdetegi sortu dira. Ikasle anizkoitzen galdetegiak sei galdera izan ditu (1. eranskina). Galdera horietatik galdera bakarra itxia izan da eta gainerako bost galderak, berriz, irekiak. Seme-alaba anizkoitzak dituzten familien galdetegiak zazpi galdera izan ditu (2. eranskina), galdera itxi batez eta bost galdera irekiz osatuta. Azkenik, hezitzaileei bideratutako galdetegiak bost galdera ireki izan ditu (3. eranskina).

## 8. Emaitzak

Hurrengo orrialdeetan, ikasle bikiak, hezitzaileei eta seme-alaba anizkoitzak dituzten familiei zuzendutako inkestetatik lortutako emaitzen analisisa islatzen da. Datuen berri emateko, lehendabizi, multzo bakoitzari egindako galderak eta jasotako erantzunak miatu dira; eta gero, datuetatik ateratako ondorio nagusiak adierazi dira, erantzunak alderatuz.


### 8.1. Ikasle bikiak

Ikasle bikiak betetako galdetegiari dagokionez, erantzun duten lehenengo galdera txikitan gela berean ala gela desberdinetan eskolatu zituzten izan da. Galdera horren aurrean, ikasleen %60k (n=6) gela berean eskolatu zituztela erantzun du. Gainerakoak, berriz, gela desberdinetan eskolatu zituztela erantzun du.



1. Grafikoa: ikasle anizkoitzen eskolatzea

Erabaki hura noren esku egon zen galderaren aurrean, ikasleen %60k (n=6) familiaren edo legezko tutorearen esku egon zela erantzun du. Gainerakoak, berriz, erabakia zentroaren esku egon zela adierazi du.



2. Grafikoa: erabakia hartzeko eskumena ikasleek erantzundakoaren arabera

Beraien iritziz erabakia noren esku egon beharko lukeen galderaren aurrean, ikasleen %80k (n=8) erabakia familiaren esku egon beharko lukeela adierazi du. Gainerakoek, berriz, eskolaren eta familiaren artean egon beharko lukeela argitu dute.

Hurrengo galderan, gela berean edo gela desberdinetan egotearen abantailak eta desabantailak adierazi dituzte. Gela berean eskolatuta ikasi duten ikasleek gehien errepikatu duten abantaila elkarrekin etxeko lanak egiteko eta elkarri laguntzeko aukera izatea izan da. "Elkarrekin egotea gustatzen zaigu, harreman ona daukagulako eta lagun talde bera daukagulako. Elkarrekin jolasten dugu, elkarri laguntzen diogu, etxeko lanak elkarrekin egiten ditugu eta elkarrekin ikasten dugu. Gainera, bat gaixorik badago, besteak etxeko lanak esaten dizkio", erantzun du 9 urteko mutil biki batek.

Desabantailen artean, besteengandik jasotzen dituzten konparazioak aipatu dute gehienek. "Oso desberdinak garenez, gure arteko konparazioak ugari izan ziren", erantzun du 24 urteko biki mutil batek. "Askotan nire nebak arazo bat zuenean, modu pertsonalean hartzen nuen eta horrek txarto pasatzea eta nire nebarengandik sufritzea eragiten zidan" erantzun du 21 urteko neska biki batek, bere nebarekin gela berean egotearen ondorio emozionala azaleraziz.

Beste alde batetik, gela desberdinetan egotearen abantailen artean, lagun desberdinak egiteko aukera izatea, denbora guztian elkarrekin ez egotea eta bakoitzak bere kabuz lan egin ahal izatea nabarmendu dira. "Bakoitza bere autonomia garatzeko aukera gehiago izan genituelakoan nago. Bakoitzak gure ikaskuntza prozesuarekiko

erantzukizuna eta ardura hartu genuen. Gure arteko alderaketak saihestu egin ziren eta bestearekin egoten jarraitzeko behar hori sentitzea ekidin zen. Ingurukoek gizabanako bakartzat hartzen gintuzten, eta horrela, ez gintuzten biak bat izango bagina bezala hartu", azaldu du 22 urteko neska biki batek. Desabantailen artean, elkarri laguntzeko, elkarrekin etxeko lanak egiteko eta elkarrekin ikasteko aukera ez izatea izan da erantzun errepikatuena.


Bikien iritzi eta proposamen desberdinei dagokienez, biki batek argi utzi du gela desberdinetan eskolatuta egon izanak abantaila handiak izan dituela, eta beraz, bikiak gela desberdinetan eskolatzea gomendatzen duela. "Nahiago dut bakoitza bere ikasgelan egotea, horrela, ikasteko eta etxeko lanak egiteko orduan, bakoitza bere modura antolatzen da", erantzun du 16 urteko neska biki batek.

## 8.2. Familiak

Seme-alaba anizkoitzak dituzten familiei dagokienez, erantzun duten lehenengo galdera beraien seme-alabak gela berean edo gela desberdinetan eskolatu zituzten izan da. Horren aurrean, gehiengoak, %70 (n=7), gela berean eskolatu zituztela erantzun du. Hala ere, bi familien kasuan, bikiak hasieran gela berean eskolatuta egon baziren ere, aurrerago gela desberdinetan banandu zituzten.

Erabakia noren esku egon zen galderaren aurrean, familien %50k (n=5) erabakia beraiek hartu zutela adierazi du. Halaber, familia horietatik %80k (n=4) seme-alabak elkarrekin eskolatzea erabaki zuen, egokitapena errazagoa izateko, lagun talde bera izateko eta ikaskuntza-prozesua berdina izateko.

Gainerako familiek erabakia zentroak hartu zuela adierazi dute. "Ez ziguten iritzia eskatu, zentroak beti jarraitzen duen prozedura delako anai-arrebak gela desberdinetan eskolatzea", adierazi du bikiak ikastetxe publiko batean dituen familia batek. Bestaldetik, seme-alabak itunpeko ikastetxe batean dituen beste familia batek hurrengo erantzun du: "Covid-19 egoera dela eta, burbuila taldeak egin dituzte eta anai-arrebak talde berean jarri dituzte. Berez, ikastolaren filosofia anai-arrebak banatzea da baina pandemia egoera dela eta, irizpidea aldatu dute."




3. Grafikoa: erabakia hartzeko eskumena familiek erantzundakoaren arabera

Erabakia noren esku egon beharko lukeen galderaren aurrean, familien %70k (n=7) azken erabakia familiak hartu behar duela defendatzen du. "Lehendabizi familiaren esku egon beharko zen. Korrante pedagogiko desberdinak daude gai honen inguruan eta guztiak izan daitezke aproposak. Dena den, irakasleen gomendioak oso garrantzitsuak dira eta jarraitzen ditut. Beraiek direla adituak uste dut. Baina erabakitzeko askatasuna izan nahi dut. Azken finean, nire semeak dira", erantzun du familia batek, bere bikiak nola eskolatu zentroak erabaki zuela.

Beste alde batetik, familien %30k (n=3) azken erabakia eskolak hartu behar duela adierazi du, betiere, familiaren iritzia entzun ondoren. "Nire ustez erabaki adostu bat izan beharko luke: eskolaren erabakia da azken erabakia, haiek dira adituak eta, baina gurasoen iritzia entzun beharko lukete. Familia egoera bakoitza desberdina da eta eskolak egoera bakoitzera egokitzeko aukera eman beharko luke", erantzun du beste familia batek.

Eusko Jaurlaritzako legeriak eskolatze anizkoitzaren inguruan zerbait arautu beharko balu galderaren aurrean, familien %30k (n=3) ezetz erantzun du. "Gurasoak dira umeen tutoreak, ez gobernua", azaldu du familia batek. Gainerako %70k (n=7) azken erabakia beti familiarena eta zentroarena izanda, Eusko Jaurlaritzak marko orokor bat ezartzea edo irizpide batzuk zehaztea ondo irudituko zitzaizela adierazi du: "ez legoke txarto irizpideren bat ezartzea, beti ere, azken hitza familiaren eta zentroaren arteko elkar ulertzetik irtenda", argitu du beste familia batek.



4. Grafikoa: Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzea




Familiek proposamen desberdinak bota dituzte. “Gurasoei erabakiaren eraginei buruzko informazioa eman behar zaiela uste dut, oinarri pedagogiko eta psikologiko batetik”, argitu du familia batek. “Nire proposamena erabakia familiaren esku egotea da. Aldi berean, zentroak familia gidatu behar duela uste dut, adibidez, irizpideak emanez eta hezitzaile gisa aholkuak emanez”, erantzun du beste familia batek. “Ume bakoitzaren garapena aztertu behar da, eta bakoitzaren nortasunaren garapena bultzatu. Bikiak elkarrekin eskolatzearena ez da zertan atzera-bueltarik gabeko erabakia izan behar. Ikasturte batean elkarrekin ondo joan daitezke, baina beste urte batean, beharbada, bakoitzak bere espazioa behar duela balora daiteke. Hau da, nire ustez, egoera eta momentuak balioetsi behar dira”, adierazi du beste familia batek.

### 8.3. Hezitzaileak

Ikastetxe desberdinetako hezitzaileei dagokienez, erantzun duten lehenengo galdera beraien zentroan erabakia noren esku dagoen izan da. Horren aurrean, hezitzaileen %70k (n=7) erabakia eurek hartzen dutela adierazi du. Halaber, zentro horietatik %71k (n=5) bikiak beti gela desberdinetan eskolatzea erabakitzen du. "Betidanik erabaki izan dugu bikiak gela desberdinetan eskolatzea, ikasle bakoitzak bere nortasuna desberdintzeko eta ondo garatzeko", erantzun du sare publikoan lan egiten duen hezitzaile batek.

Hala ere, lerro bakarreko ikastetxeek ez daukate beste aukerarik: "gure eskolak lerro bakarra du, beraz, ez dago aukerarik bi getetan banatzeko. Dena den, ahal izanez gero, bi gelatan banatzea hobeto dela pentsatzen dugu", erantzun du ikastetxe publiko batean lan egiten duen beste hezitzaile batek. Gainerako %30ak (n=3) familiak erabakitzen duela adierazi du.



5. Grafikoa: erabakia hartzeko eskumena hezitzaileek erantzundakoaren arabera

Familiaren iritzia kontuan hartu beharrekoa den ala ez galderaren aurrean, hezitzaileen %90k (n=9) baietz erantzun du. "Familiaren iritzia kontuan hartu behar dela uste dugu, informazio askoren jabe direlako eta azken finean euren umeak direlako", azaldu du herri ikastetxeko langile batek. Aitzitik, hezitzaile bakarrak ezetz erantzun du: "familiak ez dira adituak", nabarmendu du eskola pribatuko hezitzaile batek.

Eusko Jaurlaritzak erabakia arautu beharko lukeen galderaren aurrean, hezitzaileen %70k (n=7) baietz erantzun du arrazoi desberdinengatik. "Gurasoen aurrean ideia bat defendatzen duzunean legediaren babesak izateak laguntzen du", erantzun du ikastetxe publikoko langile batek. "Araua finkoa denean arazo gutxiago sortzen dira", erantzun du beste hezitzaile batek. Haatik, hezitzaileen %30k (n=3) ezetz esan du. "Biki edo hirukien arabera da, ezin da erabakia sistematizatu edo lege bat jarri kasu guztiak berdin tratatzeko", argitu du itunpeko ikastetxe batean lan egiten duen hezitzaile batek.

Hezitzaileen iritziei dagokienez, hezitzaile gehienek ikasle anizkoitzen banaketaren aldekoak direla adierazi dute: "familiaren iritzia eskatzen dugu, baina berdin zaiela erantzuten badute, bikiak banatzen ditugu", azaldu du hezitzaile batek. "Gure ustez, hobe da bikiak bi geletan banatzea", erantzun du beste hezitzaile batek. Sare publikoan lan egiten duen hezitzaile batek hurrengo iritzia eman du eskolatzeko anizkoitzaren gainean: "kasu bakoitza ikertu behar dela uste dut. Gai honi buruz hitz egiten dugunean, egoera bakoitza ezberdina dela ez dugu kontuan hartzen. Nire ustez, bikiak nola eskolatu ez dago aratuta kasu bakoitza oso desberdina eta berezia delako. Oso zaila da".

## **9. Ondorioak**

Atal honetan, Gradu Amaierako Lanatik ateratako ondorio nagusiak, lana aurrera eramateko izandako mugak eta zailtasunak, eta gaia erabakitzearen arrazoiak adierazten dira.

Lehenik eta behin, ikerketaren emaitzak aztertu ostean, ondorio desberdinak atera daitezke lan honetatik. Alde batetik, lortutako datuek bat egin dute Laborrak (2014) bere tesian aipatzen duenarekin; hots, ikastetxeek, oro har, bikiak klase desberdinetan ikastea gomendatzen dutela. Izan ere, parte hartu duten hezitzaile

gehienek bikiak gela desberdinetan eskolatzea gomendatzen dutela adierazi dute erantzunen artean. Bestetik, ikerlan honek Pérezen (2014) hitzak egiaztatu ditu; alegia, ikastetxe bakoitzaren esku dagoela erabakiaren barne familia sartzea ala ez.

Aitzitik, lortutako datuak ez datoz guztiz bat Pérgolak (2019) egindako hurrengo baieztapenarekin: eskolen eta gurasoen artean bereizketa sustatzen da. Hain zuzen ere, eskolen artean bereizketa sustatzen bada ere, ikerlan honek familiek bikiak gela berean eskolatzeko joera dutela ondorioztatu du. Horrenbestez, erabakia familiak hartuko balu eta ez ikastetxeetako hezitzaileek, ikasle anizkoitz gehiago gela berean ikasten egongo liratekeela antzeman daiteke.

Ikerketaren emaitzak sakonago aztertuz, lanaren hasieran autore desberdinek aipatutako hainbat termino erantzunen artean islatu direla ikus daiteke. Besteak beste, Trias, Ebeling eta Moilanen (2010) autoreek azaldutako bikiarekiko mendekotasuna; hots, bikiek paira dezaketen beste bikiarekiko dependentzia, edo Siemonek (1980) bere garaian azaldutako ko-bikiaren banaketaren fenomenoak.

Bestalde, ikerlan honek Eusko Jaurlaritzaren legeriaren auziari egin dio aurre; eta familiek zein hezitzaileek Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzearen aldeko apustua egin dute. Hala eta guztiz ere, argi utzi dute Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzeak malgutasuna izan beharko lukeela, irizpide batzuk adieraziz eta gomendioak emanez; baina inolaz ere, aukera bakarra inposatuz. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako legeriak ikasle anizkoitzen kasu bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanda, bietatik aukera onena zein den argi dezake; gero, zentroko hezitzaileek eta familiek bilduta azken erabakia zein den zehaztuko dutela. Modu berean, gela berean eskolatuta egoteagatik ikasle anizkoitzak pairatzen ari diren ondorio kaltegarriak antzemateko eta ekiditeko gida helarazi diezaake gobernuak hezitzaileei, ikasleak datorren ikasturtean banandu ahal izateko, eta egoera okerrerantz joatea saihesteko.

Honen harira, lan honek bat egiten du Tully et al.-k (2004) bere ikerlanetik ateratako ondorio nagusiarekin: bistakoa dirudi eskolek familian zentratutako ikuspegi malguagoa hartu behar dutela eskolan bikiak banatzeari buruzko erabakia hartzeko; gutxienez, biki bakoitzaren ezaugarriak eta esperientziak, eta gurasoen iritzia kontuan hartuta. Areago, bikiak lehen urteetan bereizteko erabakia kontu handiarekin hartu behar

da eta plangintza eta jarraipen handia egin behar da. Hezitzaileek eta bikien gurasoek zantzu emozionalak antzeman beharko dituzte, eta baliteke esku hartu behar izatea (Tully et al., 2004).

Bikiak nola eskolatu erabakiaren aurrean bai ikasleek, bai familiek eta bai ikastetxeetako hezitzaileek familiak erabakian duen erantzukizuna nabarmendu dute. Horrenbestez, galdera nagusiari erantzunez, hau da, bikiak gela berean edo gela desberdinetan eskolatzea, erantzuna garbia da: familiek eta zentroko hezitzaileek erabakiko dute, Eusko Jaurlaritzak helarazitako gomendioak jarraituz eta kasu bakoitzaren ezaugarriak aztertuz. Gogoratu behar da, halaber, banaketak ez duela zertan iraunkorra izan, eta beti atzera egin daitekeela bikiek egokitzeko arazo esanguratsuak badituzte. Gauza bera bikiak gela berean eskolatuta badaude eta horrek bikien arteko mendekotasuna handitzen badu.

Ildo beretik, lan honek argi utzi nahi du erabakia ez dela ikastetxeetako hezitzaileek bakarrik hartu beharrekoa -gaur egun zentro askotan jarraitzen den prozedura-, eta zentro hauetako hezitzaileei erabakiaren aurrean prozedura aldatzeko eta familien iritzia entzuteko gonbidapena helarazten zaie.

Ikerlan honek izan dituen mugetara eta zailtasunetara bideratuz, kontuan hartu behar da lan honen lagina txikia izan dela. Izan ere, parte-hartzaileak mugatuak izan dira, bai ala bai bikiak edo bikiak dituzten familiak izan behar zutelako. Horrenbestez, lan honen helburua bikien eskolatzearen inguruko lehenengo mailako hurbilketa bat egitea izan da, bikiei, bikiak dituzten familiei, zein hezitzaileei hitza eman nahi izanik eta euren testigantzak partekatzeko aukera eman nahi izanik. Hori dela eta, gaiaren inguruko emaitza zehatzagoak lortzeko, lagina zabaldu beharko litzateke.

Gai hau erabakitzearen arrazoiari dagokionez, arrazoi nagusia ni bikia naizela da. Nire neba eta biok itunpeko ikastetxe batean ikasi genuen, eta ikastetxeko hezitzaileek gela berean edo gela desberdinetan eskolatzea erabakitzeko aukera eman zieten nire gurasoei. Nire gurasoek gai honen inguruan zeuden liburu eta ikerketa eskasak irakurri ondoren, biok gela berean egotea erabaki zuten; besteak beste, gela barruan ere elkarbizitzen jarraitzeko eta ikasketa-prozesu bera izateko.

Galdetegia bete duten bikiak adierazi duten bezala, gure kasuan ere erabaki honek abantailak eta desabantailak izan zituen. Abantailen artean, berarekin denbora gehiago igarotzeko eta etxeko lanak batera egiteko aukera izatea nabarmenduko nuke. Desabantailen artean, berriz, urteetan zehar jaso ditugun bion arteko konparazioak eta berarekiko nuen mendekotasun emozionala nabarmenduko nituzke. Hau da, izaera oso desberdina izan dugu betidanik, bera askoz lasaiagoa eta lotsatiagoa, eta horrek gela barruan berarengandik sufritzera eraman nau askotan.

Bikia gela berean izateak onura asko baditu ere, gela barruan gertatzen zen guztia birritan pairatzen nuela esatera ausartuko nintzateke. Hau da, berak lagunekin arazo bat bazuen, arazoa nirea zela sentitzen nuen; edo irakasleek errieta botatzen bazioten, errieta niri bota izan balidate bezala sentitzen nintzen. Hori dela eta, nire esperientzian oinarrituz, emakumeek gizonek baino bikiarekiko mendekotasun handiagoa adierazten dutela (Trias et al., 2010) baieztapenarekin bat nator. Hala ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara heldu ginenean, gela berean jarraitzea edo gela desberdinetan banatzea erabakitzeko aukera eman zieten berriro ere nire gurasoei; eta oraingoan bai, gela desberdinetan banandu gintuzten.

Gai hau aukeratzearen beste arrazoi bat, lan honetatik asko ikasiko nuela eta disfrutatuko nuela aparte, gai honen inguruan dagoen informazio eskasari aurre egitea izan da. Ikerlanaren emaitzetan ikus daitekeen moduan, ikastetxetako hezitzaile askok bikiak nola eskolatu automatikoki hartzen duten erabakia da; hots, biki guztiekin prozedura berdina jarraitzen dute, betidanik horrela egin dutelako. Horren isla da hezitzaileak ez direla jabe beraien kabuz hartzen duten erabaki batek duen eraginaz, eta esperientzia horrek nola markatuko dituen bikiak, batzuetan modu aberasgarrian, eta beste batzuetan, tamalez, modu kaltegarrian.

Hori dela eta, etorkizuneko hezitzaile gisa, eta beraz, bikiak eskolatzeko ardura izan dezakedala jakinda, kasu bakoitzaren aurrean bikien onurarako aukerarik onena zein den jakin beharko nukeela uste dut. Era berean, gurasoak ikastetxera aholku eske badatoz, ahalik eta gehien laguntzea, eta ikasle anizkoitzak nola eskolatu galderaren aurrean erantzun argiena izatea espero dut.

## 10. Etika profesionala eta datuen babesia

Etika profesionala dela eta, lan hau aurrera eramateko, hurrengo printzipioak bete eta jarraitu dira:

- Giza Eskubideak errespetatzeko printzipioa: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta oinarrizko eskubideen esparruan enuntziatutako eskubideak errespetatu dira.
- Ekintza subjektuak errespetatzeko printzipioa: lanaren objektua direnen interesak lehenetsi dira, haien autonomia eta askatasuna errespetatuz.
- Informazio arduratsuen printzipioa: lan honetan konfidentziasuna errespetatu da, oinarri etikoetan eta legezko arauetan oinarriturik.

Datuen babesari dagokionez, parte-hartzaileek inkestaren eta datu-bilketaren helburu nagusiaren berri izan dute hasieratik, datuak lanarekin zerikusirik ez duen ezertarako ez dela erabiliko azpimarratuz. Era berean, galdetegiak borondatezkoak eta anonimoak izan dira.

## 11. Erreferentzia bibliografikoak

Bowlby, J. (1958). The nature of the child's tie to his mother. *The International Journal of Psychoanalysis*, 39, 350–373.

Cabero, L., Cabrillo, E. & Saldivar, D. (2007). *Obstetricia y medicina materno-fetal*. Editorial Médica Panamericana.

Casino, G. (2005eko uztailaren 12a). La clave que distingue a los gemelos. *EL PAÍS*. [https://elpais.com/diario/2005/07/12/salud/1121119204\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2005/07/12/salud/1121119204_850215.html)

DiLalla, L. F. (2006). Social development of twins. *Twin Research and Human Genetics*, 9(1), 95-102.

Euskaltzaindia. (2021). Atxikimendu. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. 2021ko maiatzaren 19an [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=atxikimendu&antzekoak=ez&option=com\\_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu-ES&bila=bai](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=atxikimendu&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu-ES&bila=bai) -tik berreskuratua.

Euskaltzaindia. (2021). Biki. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. 2021ko maiatzaren 19an [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=biki&antzekoak=ez&option=com\\_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu-ES&bila=bai](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=biki&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu-ES&bila=bai) -tik berreskuratua.

- Fatone, M., Velloso, L. & Pégola, L. (2019). Cómo contribuir al éxito en la escolaridad de los niños múltiples. *Guía sobre escolaridad múltiple (mellizos, trillizos y más)*, 34-35.
- Feenstra, C. (2016). *El gran libro de los gemelos*. Medici.
- Fortuna, K., Goldner, I., & Knafo, A. (2010). Twin relationships: A comparison across monozygotic twins, dizygotic twins, and nontwin siblings in early childhood. *Family Science*, 1(3), 205-211.
- Franklin, E. (2016). *Gemelos: orientaciones sobre su crianza y desarrollo psicológico en la familia y en la escuela*. Narcea.
- Gatica, R. (1988). Origen, diagnóstico e incidencia de mellizos. *Revisión Bibliográfica*, 20(1), 9.
- Haeussler, I., & Milicic, N. (1995). *Confiar en uno mismo: Programa de desarrollo de la autoestima*. Catalonia.
- Laborra, J. (2014). *Escolarización de múltiples en las aulas* [Tesia, Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea]. <https://es.slideshare.net/meripalou/tesina-universidad-la-riojapdf>
- Lago, C. (2016ko urtarrilaren 6a). La reproducción asistida eleva el número de gemelos en Euskadi. *Deia*. <https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2016/01/06/reproduccion-asistida-eleva-numero-gemelos/477429.html>
- López, L. (2016). *¿Soy "yo" o soy "nosotros"? Una búsqueda del desarrollo del 'self' en gemelos y mellizos* [Doktore-tesia, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa]. [https://ddd.uab.cat/pub/trerecpro/2016/hdl\\_2072\\_258128/laura\\_lopez\\_tfm.pdf](https://ddd.uab.cat/pub/trerecpro/2016/hdl_2072_258128/laura_lopez_tfm.pdf)
- Luján, I. R. (2008) Innovación y experiencias educativas. *Hermanos gemelos*, (7), 8.
- Pérez, M. J. (2014ko ekainaren 29a). ¿Deben separar a los mellizos en los colegios? *EL CORREO*. <https://www.elcorreo.com/alava/sociedad/201406/29/deben-separar-mellizos-colegios-20140627191948.html>
- Pégola, L. (2019). Escolaridad: un gran debate. *Guía sobre escolaridad múltiple (mellizos, trillizos y más)*, 6-7.
- Pienda, J., Pérez, J., Pumariega, S., & García, M. (1997). Autoconcepto, autoestima y aprendizaje escolar. *Psicothema*, 9(2), 271-289.

- Siemon, M. (1980). The separation-individuation process in adult twins. *American Journal of Psychotherapy*, 34, 387-400.
- Trias, T., Ebeling, H., Penninkilampi-Kerola, V., & Moilanen, I. (2010). Depressive and psychosomatic symptoms with special reference to co-twin dependence. *Twin Research and Human Genetics*, 13(6), 559- 566.
- Tully, L. A., Moffitt, T. E., Caspi, A., Taylor, A., Kiernan, H., & Andreou, P. (2004). What effect does classroom separation have on twins' behavior, progress at school, and reading abilities? *Twin Research and Human Genetics*, 7(2), 115-124.
- Vasco Press. (2013ko azaroaren 12a). Aumentan un 86% los partos de gemelos en Euskadi. *Noticias de Álava*.  
<https://www.noticiasdealava.eus/actualidad/sociedad/2013/11/12/aumentan-86-partos-gemelos-euskadi/220736.html>
- Webbink, D., Hay, D., & Visscher, P. (2007). Does Sharing the Same Class in School Improve Cognitive Abilities of Twins? *Twin Research and Human Genetics*, 10(4), 573-580.